

• IRUTXULO •

HITZA

BILATU



Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#) [Onartu](#)

Nork: Nerea Lizarralde - Ira 20, 2017

SAGARDO BERRIA EGITEKO SAGARRAK BILDUKO DITUZTE AIETEN



Diotenez, aurtur sekula baino sagar gehiago dago, eta sagardogileek ohi baino lehenago hasi behar izan dute sagarra jasotzen. **Aieten** ere sagardo berria egiteko prozesua abian jarriko dute larunbatean, irailaren 23an: sagar biltzea egingo dute [Kutxa-Ekogunea](#) parkean.

Aurtengo sagardoa egiteko sagarrak Ekoguneko parkeko Zabalegi sagastian bilduko dira -lehen, Aieteko Zabalegi baserria zegoen lur hauetan-. Gero eta arrakasta handiagoa du jarduera honek, eta familia asko erakarri ohi ditu. Antolatzaileek esan dute komeni dela eskularruekin eta mendiko botekin joatea. Eta batez ere, lan egiteko gogoa izatea. Trikitixarekin giroa dute sagar biltzea. Ez da beharrezkoa izena ematea. Zalantzak argitzeko 649861217 eta 943 552 020 telefono zenbakiak utzi dituzte. Posta bidez, lantxabe@gmail.com eta ekogunea@ekogunea.eus.



Sagar biltzea Kutxa Ekoguneari.

Parte hartzaileek sagarrak kizkiarekin hartu eta saskietan bildu beharko dituzte. Lana bukatu ondoren, parte hartzaileek hamaiketako ekologiko bat dastatuko dute. Sagardoa dastatzeko, otsaila arte itxaron beharko dute. Ekoguneari bildutako sagarrak Aieteko Katxola baserrira eramango dituzte, eta urrian jarraituko dute sagardoa egiteko prozesuarekin, Katxolan baitago Munto baserri zaharreko toleara.

Egitaraua (larunbata, 23):

11:00-11:15 Ongietorria eta aurkezpena.

11:15-13:00 Sagar biltzea.

13:00-14:00 Ekogunek parte-hartzaile guztiei hamaiketako ekologiko eder bat eskaineko die.



AIETE AUZOAK



NEREA LIZARRALDE

Ez dago iruzkinik

EGIN IRUZKIN BAT



AZKENAK

Zinemaldirako sarrerak doan



LORTU ZINEMALDIRAKO GONBIDAPENAK!



DONOSTIAKO MINTZALAGUNEN EGITASMOA SENDOTZEKO, EUSKALTEGIEKIN HITZARMENA SINATU DU BAGERA ELKARTEAK



EGIAKO SEXU ERASOAK GAITZESTEKO ELKARRETARATZEA EGIN DU UDALAK



'ERRETINOSIA - ILUNTASUNAREN AURKAKO BORROKA' JARDUNALDIA EGINGO DU BEGISAREK, IGANDEAN

BIDALI IRUZKINA

Nor Gara | Kontaktua | Iragarri | Tel: 943 467236 |
Cookie politika | Lege Oharra | Pribatutasun Politika



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Elkarrizketak, iritzierak eta iradialak ez dira erabakirik hartzen.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastian
Donostia 2015-2016



DONOSTIAKO HEDABIDEAK S.L. • WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU CREATIVE COMMONS ERABILERA LIZENTZIAREKIN.

